



IRUNGO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineke Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Irungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa, 6.3.03 Gain Gainean, 6.3.05 Prudencia Arbide eta ER-04 eskola lursalearen esparruei dagokiena** (Diputatu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 30ean behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko uztailaren 10an argitaratua).
- **Irungo hiri antolamenduko arauen plan orokorraren aldaketa, 6.2.01 Oinaurre esparruari dagokiona** (Diputatu Kontseiluak 2006ko abuztuaren 2an behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko urriaren 11ean argitaratua).



- **6.2.01.Oinaurre esparruan hirigintza jarduketa programa. Behin betiko onespena.** (Udalbatzak 2007ko martxoaren 28ko Osoko Bilkuran, onartua, eta GAO 2007ko apirilaren 23an argitaratua).).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.**
- 2.- 301, 311 eta 411 zona katastralen mugapena aldatzen da.**
- 3.- 601 zona katastrala sortzen da.**
- 4.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:**

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(EK)Eraik Kos.</u>	<u>(BEE)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
601	HIRITARGARRIA	510,86	487,16	13.823,28

6.- W azpizona katastrala esleitu zaie 601 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoa.

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoa.